

4

URRIA
2015

Infokontsumoa

ASEGURUEN KONTRATAZIOA



AINZAT IZAN BEHARREKO OINARRIZKO KONTUAK

SANTURTZI
udala - ayuntamiento
Stz

IUB
MIC

 **kontsumobIDE**
KONTSUMOKO
EUSKAL INSTITUTUA
INSTITUTO VASCO
DE CONSUMO

ZER DA ASEGURUA?

- ▶ Kontratu bat da, non kontsumitzaileak ordaindu beharreko ordainsari jakin baten truke, aseguru erakundeak konpromisoa hartzen duen kontratuak estaltzen duen ezbeharririk gertatuz gero, eragindako kaltea ordaindu edo zenbateko, errenta edo bestelako prestazio bat emateko, hitzartutakoaren arabera.
- ▶ Aseguru ohikoenak etxebizitzako arrisku anitzekoa da, ibilgailuena, bizitza eta heriotza.
- ▶ Hurrengo kasu hauetan **derrigorrezkoa** da aseguruia izatea:
 - a) Ibilgailuetarako derrigorrezko aseguruia, kalte material eta hirugarren bati egin dakizkiokeen kalteetan erantzukizun zibila ordaintzeko.
 - b) Hipoteka bat formalizatzen denean, suteak eragin ditzakeen kalteak ordaintzeko.

- ▶ Aseguru etxearen **publizitatea** kontu handiz **aztertu** behar da, eta erabaki bat hartu aurretik **baldintza, estaldura eta baztertutako kasuen** inguruko informazio guztia arretaz **irakurri**.




- ▶ Aseguru polizak honako hauek ditu:
 - a) **Baldintza partikularrak:** Aseguruan kontsumitzaile bakoitzarentzat beren beregi ezarritako baldintzak, hauxe da sinatzen dena.
 - b) **Baldintza orokorrak:** Aseguruaren xedea eta estaltzen dituen arriskuen definizioa hartzen ditu kontuan, bai eta **bazter** uzten dituen ere, hauek beti beltzez agertu behar direlarik. Eranskin ematen den liburuxka bat izaten da .

- ▶ Komeni da **Ondasunaren benetako balioan aseguratzea:**

- Balio baxuagoan aseguratuz gero, kalte-ordaina baxuagoa izango da, aseguru-etxeak neurri proportzionala ezarriko du eta.
- Balio altuagoan aseguratuz gero, aseguru-etxeak ondasunaren benetako balioaren arabera ordainduko du.

- ▶ Aseguruaren kontratua eta berorren aldaketak **idatziz formalizatu** beharko dira.



- ▶ Gomendatzen da kontratuen kopiak beti **gordetzea** da eta bere klausula guztiak **ezagutzea**.

- ▶ Normalean, **aseguru baten iraupena hilabete batekoa da** eta automatikoki berritzen da, epemugaren eguna baino lehen jakinarazi ezean.
- ▶ Kontratua alderdi biek **baliogabetu dezakete** beste alderdiari **idatziz** horren berri emanez: asegurudunak epemugaren eguna baino **hilabete bat lehenago** eta aseguru-etxeak bi hilabete lehenago .
- ▶ **Ezbeharririk** badago, aseguru etxeari **gehienez 7 eguneko epean jakinarazi** behar zaio.

ASEGURUAREN ORDAIN-SARIA

- ▶ **Kontsumitzaileak** aseguruaren truke **ordaintzen duen zenbatekoa** da.
- ▶ Ordain-saria **aldez aurretik ordaintzen da** eta ordaindutakoa **aseguruaren aldi osorako** da, normalean urte beterako.
- ▶ **Ordain-sari zatikatua** egiteko aukera dago (aseguru etxeak aseguruaren onuradunak errazago ordaintzeko sortutako modalitatea). Hala ere, ordainketa zatikatua izanda ere, ordain-saria oso-osorik ordaindu behar da, ezin zaio ordain-sariaren parte bat ordaintzeari utzi.
- ▶ Aseguru-kontratuaren estaldura aldia amaitu baino lehen baliogabetu edo aseguruaren xedea desagertzekotan, kontsumitzaileak **ez du kontsumitu gabeko ordain-saria jasotzeko eskubiderik** izango, aseguruak beren-beregi kontrakoa zehaztu ezean.
- ▶ **Kontratuaren parte garrantzitsua** da, eta beraz, horretan zerbait aldatzekotan kontsumitzaileak beren-beregi eta idatziz onartu beharko du.
- ▶ Ordain-sariaren **igoerarekin lotuta**, balizko bi kasu daude:
 - Kontratuan zehaztuta egotea igoerako berrikuspena egingo dela; ez du berriro onartzerik eskatzen, kontratua sinatu zenean puntu horrekiko adostasuna agertu zelako.
 - Kontratuan zehaztuta ez egotea; kasu horretan kontsumitzaileak berrikuspena onartu behar du. Aseguru-etxeak ordain-sariaren igoera baino bi hil lehenago eman beharko dio horren berri aseguratuari, horrela egin ezean, aurreko ordain-saria kobratu beharko dio.
- ▶ **Ordain-saria ordaindu ezean:**
 - Lehenengo ordain-saria bada eta ezbeharrak gertatzen bada, aseguruak ez du ordainduko eta aseguru-etxeak kontratua baliogabetzeko eskubidea izango du.
 - Hurrengo ordain-sarietako bat bada, aseguruak ezbeharrak gertatu eta hilabete epean estaltzen du. Behin hilabete hori igarota, asegurua automatikoki bertan behera geratuko da eta, ez badu aseguru-etxeak erreklamatzeko, handik eta sei hilera.



NON ETA NOLA ERREKLAMATU

Aseguru-etxearekin arazorik badugu, hurrengo urrats hauek eman behar ditugu:

1. Saiatu aseguru-etxearekin **adiskidetasunezko akordioa** lortzen.
2. Ezin bada horrelakorik egin, idatziz Bezeroaren Arretarako Departamentuan erreklamatu beharko da edo, hala badagokio, **Aseguratuaren defendatzaileari** helarazi erreklamazioa, berau baita erreklamazio kasuetan azken erabakia hartzen duena, aseguru-etxeek derrigor onartu beharrekoa .
3. Ez bada erantzun egokirik jasotzen edo bi hilabete igarota ez bada erantzunik jaso, **Aseguruaren Zuzendaritza Nagusira** jo daiteke. Erakunde hau, aseguru-etxeari zein erreklamatzailerari entzunda, ebazpena emango du, eta nahiz eta loteslea ez den, defentsarako argudio gisa erabili ahal izango da, baldin eta epaiketarik badago.

Dirección General de Seguros y Fondos de Pensiones
Paseo de la Castellana, 4428046 Madrid
Teléfono: 91 339 70 00

Informazio gehiago aseguratuarentzako gida liburuan:
<http://www.dgsfp.mineco.es/Gaspar.asp>

ASEGURUEN KONPENTSAZIO PARTZUERGOA

Ezohiko gertakizunik denean, kalte-ordainak jasoko direla bermatzen du, esate baterako, hondamendi naturalak edo terrorismo ekintzak badira, edo aseguru-etxeak porrot- edo ordainketen etendura-aitorpena egin badu edo kaudimengabeziarengatik likidazio-prozeduraren barruan badago.



Edozein kontsultarako,
JOAN...



Santurtziko KIUB bulegora
(Kontsumitzailearen Informaziorako Udal Zerbitzua)



*Murrieta etorbidea, 25. (Oriol Jauregiaren ondoan)
Ordutegia: 9:30-13:30 astelehenetik ostiralera*